

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Kontseiluaren 2019ko urriaren 25ean hartutako erabakiaren laburpena, bertan ikastetxera joateko mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzea helburu duten ekintzak gauzatzeko diru-laguntza deialdia eta oinarriak onartzen dira

BDNS (Identif.): 480806

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

Betebehar hauek betetzen dituzten ikastetxeek edo ikasleen familia-elkarteek (IFE) eskuratu ahal izango dute diru-laguntza:

– Ikastetxea Gasteizko udalerrian kokatua egotea edo, gutxienez, ikasleen ehuneko 60 udalerrian errolatua egotea.

– 2019ko irailetik 2020 ekainera bitartean ikastetxera joateko mugikortasun aktibo eta autonomia bultzatzeko proiektu bat garatzen aritea edo garatzeko asmoa izatea.

– 2019ko irailetik 2020 ekainera bitartean jarduera horiek egiteak gastuak ekarri izana fakturen bitartez egiaztatuta daitezkeenak, mugikortasun aktibo eta autonomoaren sustapenari estu-estu lotuak.

– Ikastetxeek beharrezko argibideak eman beharko dituzte, egokitzat jotzen bada, IGiko teknikariek egiaztatzerik izan dezaten aurkeztutako fakturak eta diruz lagundutako proiektuen garapena bat datozela.

– Ikastetxe bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal du, dela ikastetxearen izenean, dela bertako ikasleen familien izenean.

Bigarrena. Helburua

Gasteizko ikastetxeei edo ikasleen guraso-elkartei laguntza ekonomikoa ematea da diru-laguntza deialdi honen xedea, hain zuzen ere 2019ko irailetik 2020 ekainera bitartean ikastetxera joateko mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzea helburu duten ekintzak gauzatzeko.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Lehendakariak 2019ko urriaren 25ean onartu ditu eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 10.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea deialdi honen laburpena ALHAOn argitaratzen denetik 2020ko uztailaren 6a arte izango da.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 25a

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren lehendakaria
ANA OREGI BASTARRIKA